

Irudi: Ibai Gandiaga

Marisi Busturiarekin solasean

“Lurralde-mailako gai sektorialen gaineko erabakiek interes guztien parlamentu parte-hartzailea beharko lukete”



Ula Iruretagoiena °

Egun, lurralde-antolakuntzako erabakiak modu hierarkikoan egiten dira, goitik behera. Eredu hau baliagarria al da?

Lurralde-mailako erabakiek ikuspegi orokor eta osotarikoa eskatzen dute. Halaberharrez, goiko eskala batean murgildu behar gara lurraldearen egituraketa, funtzionamendua, baliabide natural eta sozialak eta eskakizunak aztertzeko. Behin goitik beherako erabaki-jauzia izan behar dela onarturik, lurraldea antolatzeko eremua zein den definitzeak berebiziko garrantzia du ikuspegi sistemiko egokiaren irakurketarako. Eremu Funtzionalak mugatzeko irizpidea adibidez, hiri-sistemen arteko funtzionamenduaren araberakoa izan da. Hau da, herriarrek barneratutako harremanak eta mugimenduak aintzat hartu ditu, baina ingurune fisikoaren mugak baztertu. Ahaztu egin da hiriak euskarri fisiko batean kokaturik direla, unitate morfologiko eta ekosistemiko batean txertaturik, eta ikuspegi hori, ingurumen-mailakoa alegia, ez da mugaketa egiterakoan kontuan hartu. Mugaketa-irizpideak errebisatu beharrekoak direla uste dut.

Egun 3 antolakuntza-eremu nagusi dira. Lurraldeko Antolakuntza Artezbidetik (LAA aurrerantzean) Euskal Autonomia Erkidegoa osorik ikertzen dute eta lurraldea Eremu Funtzionaletan banatzen ditu 2. antolakuntza-eremua sortuz. Azkenik udalerrri-eskala dago. Zein erabaki hartzen da eskala bakoitzean eta zenbateko autonomia du bakoitzak?

Lurralde Antolakuntza Artezbidetik lurralde-eredu orokor bat proposatzen dute baina zehaztapen gutxiarekin. Nolabait esateko, LAAek kontzeptuak besterik ez dute eskaintzen eta ideia horietatik eratorri daitezkeen garapen-proposamenak oso interpretagarriak dira. Lotesleak diren erabaki bakarrak bi dira. Batetik, udalerrri guztien etxebizitza-hazkuntzari buruzkoak (gehieneko etxebizitza kopurua mugatuz baina udalerrri guztiak hazteko hipotesian irudikatuz), eta, bestetik, LAAek definitutako babespen bereziko guneetan bete beharreko erabilera-matrizea ezartzen dutenak.

Baina ezarpen erabakigarrienak ez dira LAA dokumentuan ematen, Lurralde Plangintza Sektorialetan baizik. Erabaki sektorialak (azpiegiturak, ingurumenari dagozkionak, etab) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan hartzekoak dira, eta ez Lurralde Historikoen eremuan. Hemen ere ikuspegi partziala gainditu beharrean gara eta Lurralde Historikoen arteko tentsioak gainditu behar dira hartu beharreko erabakiak modu orekatuan egin daitezken. Erabaki sektorialek gure herrirako duten eraginagatik, ikuspuntu independenteago eta integral batetik hartuak izan beharko lirakeke, interes partikularrak salbatuz.

Baina nola da posible? Lurralde Plan Partzialak Lurralde Plangintza Sektorialen gainetik dira ezta?

1982. urtetik aurrera, Marisi Busturiaren bizitza profesionala lurralde-antolakuntzaren gogoetari loturik izan da, hastapenetan Eusko Jaurlaritzan eta geroztik Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailaren arkitekto-hirigile teknikari eta arduradun gisa. Ibilbide luze horretan legedi desberdinen proposamen eta ondorioak bizi izan ditu, hala nola Hirigintza Sailaren arduren eragite-eremua. Foru Aldundiari udalerrietako plangintzen kontrol-lana zegokion, baina azken urteetan Bizkaiko lurralde-antolakuntzen plangintzen arduraduna izan da (Lurralde Plan Partzialak-LPP).

Legeak LPPen erabaki-ahalmena Plangintza Sektorialen gaintetik jartzen badu ere, praktikan Plangintza Sektorialen ezarketak gaintetik dira, askotan LPPak egin baino lehen onartuak izan direlako eta asko eta asko jadanik martxan direlako. Beraz, LPPen eragite-eremua asko murrizten da eta, beraz, ez du erabaki askoren gaineko autonomiarik.

Araza hau antzinatik dator. Politika sektorialen erabakiek ez dute sekula hirigintzako planteamenduekin inolako egokitza-penik onartu, beti gaintetik izan dira eta zurruntasunez defenditu dituzte hartutako erabakiak. Eta larriena zera da, eskumen sektorialek ikuspegi partziala izaten dutela beti (haien sektore zehatzarena) eta ez dute jarrera bateratzailerik agertzen ez eta beste interesekin bat egiteko nahirik. Aldebakarreko erabaki hauek dira gure bizitza agintzen dutenak: energia-ereduak, trenbide-sarea, errepideak...

Udalerriek kritikatzan dute, hierarkian hartutako erabaki-segidan, ikuspegi lokala galdu egiten dela eta hauen hitza ez dela kontutan hartzen.

Arazoa ez dator erabaki-eskala desegokitasunetik, baizik eta beharrezko partaidetza bultzatzen ez delako. Nire ustez, udalerrien hitza kanpoan uzten denean, erabaki-sistema beraren arrakasta kolokan jartzen da. Inplikaturik diren eragileen arteko komunikazioa eta hauen parte-hartze zuzena behar-beharrezkoa da, udalerriek praktikara eraman behar baitituzte lurralde-mailako deliberamenduak.

Nik gainera, udalerriez gaingiko erabaki-eremua aldarrikatzen dut. Udalerrien mugaketak arrazoi administratiboei jarraitzen die, eta horrek ez du lurraldearen osoko ulertzea ahalbidetzen. Udalerrien ohiko banaketaren arabera eginiko hiri- eta lurralde-antolamendua gaingitu beharra dago.

Udalerrri-eskala gaingitu eta udalerrri desberdinek bildutako ikuspegiaren behar gogoeta egitea beharrezkoa ikusten dut. Udalerrriaren eskala gaingitu beharra dago kasu askotan. Izan ere, udalerrien mugaketa administratiboei ez diote gehienetan errealitate fisiko bati erantzuten eta, beraz, ezin du udalerrriak testuinguruaren benetako erradiografia bat egin. Ez du bateratasunik morfologikoki. Horrek lurraldearen


ikuspegi integrala ikustea gaitzesten du. Hiri-antolakuntza, udalerrri-mailakoa bainoago, testuinguru fisiko komun bat elkarbanatzen duten udalerrri askoren erabaki-gunea sortzearen beharra baieztatzen dut.

Lurralde-antolakuntzako plangintzen ibilbideari begira, zein da zure balorazioa?

Ingurumen fisikoari dagokionez, ingurumenaren babesleak diren hainbat sektoretatik pozik agertu dira ekarritako aldatketekin. LAA idazten ari zirenean, Europan zegoen ingurumenarekiko sentsibilitatea barneratu zuen dokumentuak eta euskarri naturalaren babespen-plangintza sektorialen bultzatzailea izan da. Zentzu honretan, LAAek ekarpen inportante bat egin dute, euskarri fisikoarekiko errespetua lurralde-antolakuntzaren parte bilakatu baitzuen, ordura arte hutsune izan zena. Egiaz, atal oso bat ingurumenaren babespenari dedi-katzen zaio. Esan beharra dago gainera, hasiera batean ingurumena babesteko irizpideak ezarpen lotesle gisa aurkeztu zirela, baina politikariek garaiko garapen-helburuetarako neurriok lar murriztailetzat jo zituzten, eta lotesle-izaera ezabatu zen.

Ingurumena lurralde-plangintzan aintzat hartzeak balorazio positiboa badu ere, lotesle den erabilera-matrizeak akatsak ditu. Erabilera modu orokorrean definitu dira eta zehaztapen-gabezi horrek ekartzen du maiz, erabilerearen interpretagarritasunak babespen-helburua bera, krisian jartzea.

LAAen lurralde-eredua garapenean oinarriturik dago (herrialde guztiak hazi egingo diren aurreikuspena egiten baitu), eta ezarpenak zenbakiz besterik ez dira egiten. Udalerriek derrigorrez erabili beharreko etxebizitza-kuantifikazioaren metodologia biziki nahaspilatsua eta ulergaitza izateaz gain, neurrigabekoa eta zenbakizkoa da, bestelako eragilerik aintzat hartu gabe. Udalerrietako hazkuntzaren neurria formula bidez egiten da, udalerrien errealitate eta gaitasunekin loturarik ezarri gabe, *abstraktuan* pentsatua bederen. Proposatzen den metodologia gainera, esan bezala, biztanleriaren hazkuntzan oinarriturik dago, eta joera hori ez da erreala azken urteotan. Hiri-sistemen eremuan, beraz, herrigune batzuen hazkuntza bultzatzen da, eta beharrez, beste batzuen ahultzea.



Igorreko Lurralde Plan Partziala. Kolore marroiz uholdegarritasun-azalera adierazten da. Hiri-hazkuntza azalera horiek errespetatuz gauzatu da.

Etxebizitza kopuruaren kuantifikatze-metodoa definitzen den bitartean, aktibitate ekonomikoaren kuantifikaziorako, aldiz, ez dago ezarketarik. LAA-ak herren daude atal honetan eta gabezia Plangintza Sektorial batek betetzen du. Aktibitate ekonomikoan ere, zenbaki-kuantifikatze bat proposatzen da jadanik dauden errepide-ardatzen inguruko aktibitate-guneetan kokaturik. Errepide-ardatz nagusien eta herriguneen arteko harremanik ez denez, aktibitate ekonomikoa periferian jarri da eta errepide bidezko mugikortasuna bultzatu. Ez da, beraz, aktibitatea herri-sarean txertatzen eta ez dago aukerarik erabilera mistoetarako. Kotxean oinarritutako lurralde zonifikatua daukagu ondorioz. LAAetan ez dago mugikortasunaren gaineko aipurik.

Etorkizuneari begira, nola egokitu edo aldatu behar da gure lurralde-antolakuntza?

Lurralde Plan Partzialek politika sektorial desberdinen bateratze-proposamena egiteko aukera izan beharko lukete, eta udalerrien presentzia erabaki-mahai horretan ezinbestekoa da. Erabaki sektorialek gure bizitzan duten eragin eta ondorioengatik, hauek diskutitzeko interes guztiak biltzen dituen *parlamentu parte-hartzaileak* sortu behar dira.



° Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakaslea da.